

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

### 4058

*EBAZPENA, 2023ko uztailaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, laguntza batzuetarako deialdia egiteko 2023rako. Lankidetzak-erakundeentzat dira, antolaketa aldatzeko prozesuak egin ditzaten genero-berdintasunaren alde.*

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (2018ko apirilaren 9ko EHAA, 67. zk.) lankidetzak-erakundeek eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeotan genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Dekretu horren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat, bidezko da lankidetzak-erakundeek eman beharreko laguntzetarako deialdia egitea, 2023. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak susta ditzaten.

Deialdi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren barruan sartzen da, zeina Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez luzatu baitzen 2022-2024rako. Bai Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (luzatua), bai Dirulaguntzen 2023ko Plan Estrategikoa (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiaren bidez onartua) argitaratuta daude Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian: [www.elankidetzak.euskadi.eus](http://www.elankidetzak.euskadi.eus) «Nortzuk gara» atala, «Plangintza» azpi-atala.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 9ko 5/2008 Legearen 10.b) artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliaturik, 2023ko otsailaren 8ko bileran, erabaki zuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari proposatzea dirulaguntzerako deialdi hau abiaraztea, eta dirulaguntzak emateko oinarritzko irizpideak onartu zituen.

Hori dela eta, hauxe

#### EBATZI DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen hau dirulaguntza batzuetarako deialdia egiteko da. 2023rako izango dira, lankidetzak-erakundeentzat, beren antolaketan aldaketa-prozesuak egin ditzaten genero-berdintasunaren alde. Dirulaguntza horiek martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan daude arauturik.

##### 2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– 433.000 eurokoa izango da deialdi honetako laguntzak finantzatzeko ezarritako zuzkidura ekonomikoa.

2.– Diruz lagundu daitezkeen faseetarako bakoitzerako jarritako diru-zuzkidura hau da:

a) Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea: 210.000 euro.

b) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa egitea: 16.000 euro.

c) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea. 200.000 euro.

d) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea: 7.000 euro.

3. artikulua.– Eskaerak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta epemuga-hilean amaituko da, argitaratu zen egunean. Epemuga-hilean ez badago epea hasi den egunaren baliokiderik, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

2.– Antolaketa-aldaketek lau fase izaten dituzte, baina, deialdi honetan, gehienez bi fasetarako dirulaguntza eskuratu ahal izango da, aukera hauetako bat landuz:

a) Generoaren Partaidetza Diagnostikoa egitea eta Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa prestatzea.

b) Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea.

3.– Agindu honen ondoriozko eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoz bakarrik egingo dira.

4.– Eskaera-orria eskuratzeko eta betetzeko, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikora jo beharko da; laguntzen eta dirulaguntzen apartatura, zehazki.

5.– Egoitza elektronikoko horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, bai eta eskaera-orria ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean eskuratu ahal izango da, laguntzen eta dirulaguntzen atalean.

6.– Entitate interesduna espedientean sartzeko, dokumentazioa aurkezteko eta zuzenketak, jakinarazpenak eta prozedura honekin lotutako gainerako izapideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

7.– Eskaerarekin batera, entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo entitatearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

8.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, legezko ordezkariaren akreditazioa ofizios begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean. Hala ere, ordezkari bati eman ahal izango zaio, haren izenean elektronikoki jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketa guztietan, eta, horretarako, aukera hauetako bat erabiliko da:

– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko kokatua (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>), edo

– Borondatezko legezko ordezkari bati egilestea inprimaki normalizatua (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normal->

dua/), behar bezala formalizatua, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dena. Pertsona juridikoek ordezkaritza-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkaritza-emailearen legezko ordezkarri gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu erantsi beharko dute, edo

– Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua ([https://www.euskadi.eus/erregistroa/reg\\_ag\\_coop/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/erregistroa/reg_ag_coop/web01-tramite/eu/)).

Ordezkarriak egoitza elektronikoa horretan onartutako bitarteko bat izan beharko du elektronikoki identifikatzeko.

Honako helbide honetan daude eskuragarri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

9.– Laguntza-eskaera eta eskatutako dokumentazioa nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira.

10.– Eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

4. artikulua.– Eskaeraren edukia eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskaria egiteko, I eranskinean datorren eredu normalizatua erabili behar da. Entitate eskari-egileak oso-osorik bete behar du, telematikoki, beharrezkoak diren bere datu orokorrak emanaz. Eskabidean, erantzukizunpeko aitorten hauek agertuko dira.

a) Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori frogatzeko dokumentazioa duela; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duela, eskatzen zaionean; eskubidea aitortzen zaion bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditza-keela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

b) Konpromisoa hartzen duela jakinarazteko helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu eta, hala badagokio, jaso dituela, edozein administrazioetatik edo ente publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

c) Konpromisoa hartzen duela jakinarazteko ea sartuta dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek eta bestelako entitateek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zehapen-prozedura batean.

d) Ez dagoela sartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako inolako debeku-egoeratan.

e) Ez dagoela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarten zigor- edo administrazio-arloko zehapenen pean, ez eta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen pean ere, barnean hartuta sexu-diskriminazioarengatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik ezarritako zehapenek dakartzaten debekuak, betiere zehapenean ezarritako aldian, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.5 artikulua gaur egungo idazketaren arabera.

f) Ez dagoela laguntzak berreskuratzeko agindu baten menpe, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

g) De minimis erregimenari lotutako laguntzarik inguratzen badu, jakinaraziko duela. Laguntza horiek Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduan daude arauturik (2023ko abenduaren 18ko Erregelamendua). Han dago zehazturik Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzetan nola aplikatu 2020, 2021 eta 2022ko zerga-ekitaldietan.

2.– Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakundearen kontraturik dauden gutxienez hiru lagunen lan-kontratuaren kopia digitalizatua.

b) Ez da beharrezkoa izango erakunde eskatzaileak inskripzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan aurkeztea, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari baimena ematen badio eskumena duen administrazioan ofiziosz begiratu, ziurtatu edo egiaztatzen.

3.– Zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela erakusteko, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, adieraziz, erakundearen beraren erantzukizunpean, zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan jasota dagoen bezala, han zehazten baita nola egiaztatu behar den betetzen direla zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Erakunde eskatzaileak ez badu erantzukizunpeko adierazpena egiten, dagokion dokumentazioa aurkeztuz erakutsi beharko du egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

4.– Eskariak baloratzeko, entitateak honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango du:

a) Baldin eta Generoaren Partaidetza Diagnostikoa egiteko eta Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa prestatzeko bada eskaria:

Proposamen teknikoa, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Aurrekontua, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Genero-egituren egokitasuna baloratzeko: genero-kontuetarako pertsona erreferentearen curriculum vitae eta haren esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria, bai eta kontratua ere.

– Kanpo-dinamizazioa egiten duten pertsonen egokitasuna baloratzeko (pertsona bat edo gehiago izan daitezke): haien curriculum vitae, eta horretarako egokiak direla egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria.

b) Eskaera Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egiteko baldin bada:

– Proposamen teknikoa, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Aurrekontua, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Generoaren diagnosi parte-hartzailea, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan 3.a artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek lankidetzaren erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

– Genero-egituren egokitasuna baloratzeko: genero-kontuetarako pertsona erreferentearen curriculum vitae eta haren esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria, bai eta kontratua ere.

– Kanpo-dinamizazioa egiten duten pertsonen egokitasuna baloratzeko: curriculum vitae eta horretarako egokiak direla erakusteko kanpo-frogagiria.

c) Eskiera baldin bada Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategikoa osorik edo zati batean ezartzeko eta ebaluatzeko:

– Proposamen teknikoa, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Aurrekontua, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Genero Berdintasunaren aldeko Ekintza-plan Estrategikoa, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan 3.b artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horretan dago arauturik lankidetzaren erakundeei zer laguntzak emango zaizkien antolaketa aldatzeko prozesuak egin ditzaten genero-berdintasunaren alde.

– Genero-egituren egokitasuna baloratzeko: genero-kontuetarako pertsona erreferentearen curriculum vitae eta haren esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen duen kanpo-egiaztagiria, bai eta kontratua ere.

– Kanpo-dinamizazioa egiten duten pertsonen egokitasuna baloratzeko: curriculum vitae eta horretarako egokiak direla erakusteko kanpo-frogagiria.

d) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea:

– Proposamen teknikoa, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Aurrekontua, horretarako eredu normalizatua erabiliz: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean.

– Genero Berdintasunaren aldeko Ekintza-plan Estrategikoa, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan 3.b artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horretan dago arauturik lankidetzaren erakundeei zer laguntzak emango zaizkien antolaketa aldatzeko prozesuak egin ditzaten genero-berdintasunaren alde.

– Genero Berdintasunaren aldeko Ekintza-plan Estrategikoaren ezarpenari buruzko txostena, martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuko 3.c artikuluan ezarritako baldintzen arabera (dekretu horre-

tan dago arauturik lankidetzaren erakundeei zer laguntza eman, antolaketan aldaketa-prozesuak egin ditzaten genero-berdintasunaren alde).

– Kanpo-dinamizazioa egiten duten pertsonen egokitasuna baloratzeko: curriculum vitae eta horretarako egokiak direla erakusteko kanpo-frogagiria.

5.– Diruz lagundutako prozesuan zehar sortzen diren agiri guztietan, bai eta memoria eta txostenetan ere, hizkera ez-sexista erabiliko da.

6.– Erakunde eskatzaileak publikoki jakinaraziko du parte hartuko duela berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuan.

7.– Baliteke diruz lagundutako prozesua kanpotik ebaluatzea. Kanpo-ebaluaketa hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatuko du.

5. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

Hautaketa-batzordeak baloratuko ditu eskaerak. Kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Dña. Alazne Camiña Izkara andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko arduraduna. Postu hori hutsik baldin badago, hemen ez badago, gaixo badago, edo legezko arrazoi bategatik jardun ezin badu, honek ordezkatu du: Noemí De la Fuente Pereda andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoaren arduraduna.

– Batzordekidea eta idazkaria: Dña. Edurne Bengoechea Sorozabal andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren genero-arloko programetako teknikaria.

– Batzordekidea: Sandi Ramiréz Cameno jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria. Postu hori hutsik badago, hemen ez badago, gaixorik badago edo legezko arrazoi bategatik jardun ezin badu, honek ordezkatu du: Ana Isabel Rojo González andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Aholkularitza Juridikoko arduraduna.

Hautaketa Batzordeak, behar izanez gero, teknikari espezialisten laguntza izan dezake. Teknikari horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa ematekorik ez.

6. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Balorazio-irizpideak martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuko 16. artikuluan aurreikusitakoak dira (40/2018 Dekretua, martxoaren 27koa: han dago arauturik lankidetzaren erakundeei zer laguntza eman aldaketa-prozesuak sustatzeko).

7. artikulua.– Ebazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.9 artikuluekin bat, eskaera aurkeztu zenetik sei hilabeteko epea igaro ondoren, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatzen duen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 23.4 artikulua dioenez, entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehaztuko da dagokion ekitaldian onartzen den lehenengo laguntza-deialdian.

Hori kontuan izanik, 2023ko aurrekontu-ekitaldian ematen diren dirulaguntza guztien % 7koa izango da entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa. Hau da, 3.378.201,12 euro, garapenerako lankidetzaren kargura urtean onartzen diren laguntzen edozein deialditan; dirulaguntza horiek geroago ordaindu litezke, aurreragoko ekitaldietan.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuan ezarritakoaz gain (han dago arauturik lankidetzaren erakundeek zer laguntza eman antolaketa aldatzeko prozesuak susta ditzaten ekitatearen alde), ebazpen honek hizpide dituen dirulaguntzek honako arau hauek xedatutakoa dute oinarri: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 26a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

ERANSKINA  
ESKAERA-INPRIMAKIA  
GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAKETA-ALDAKETAKO PROZESUAK

Eranskin hau deialdi-ebazpenari erantsi zaio, eskabide normalizatuaren edukiaren berri emateko soilik. Finantzaketa genero ekitatearen aldeko prozesurako laguntza eskatu nahi duen entitateak ez du eranskin hau erantsi beharko; aitzitik, telematikoki bete beharko du, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunearen bidez, «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean

Izartxo (\*) duten eremuak nahitaez bete behar dira.

**Hartzailea:**

Erakundea: BESTE ERAKUNDEAK - GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Instrukzio-organoa: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARITZA

**DATU PERTSONALAK****Eskatzailea:**

**Honela jarduten du**  Espedientean interesa duen pertsona/erakunde gisa:  Honako honen ordezkari gisa:

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Sexua

**DATU JAKINARAZPENAK****Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala\***

**Elektronikoa:** Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

**Kanal elektronikoa gainera oharra:** jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

**Abisuak jasotzeko datuak**

**Nire karpetan** jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Posta elektronikoa\* \_\_\_\_\_

Berretsi posta elektronikoa \_\_\_\_\_

Telefono mugikorra \_\_\_\_\_



**Komunikazio hizkuntza\***

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

- Euskara
- Gaztelania

**Datuak erabiltzeko baimena**

- Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.
- Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

**DOKUMENTAZIOARI BURUZKO OHARRA****Ez da beharrezkoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian dagoen dokumentazioa aurkeztea**

Aldez aurretik aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango eskabide honi lotutako dokumentazioa berriz aurkeztea. [DOK] bidez identifikatutako inprimakiaren atal bakoitzean, dokumentu horietako bakoitza aurkeztu zen deialdiaren espediente-zenbakia eta urtea (2018tik aurrera) adierazi beharko dira, eta indarrean jarraitu beharko dute.

**Dokumentuen hizkuntza**

Euskaraz edo gaztelaniaz ez dauden dokumentuekin batera gaztelaniarako edo euskarako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

**PROIEKTUAREN DATUAK****Erreferentziazko pertsonaren datuak**

Izena \*

Lehenengo abizena \*

Bigarren abizena

Lanpostua eta kargua

Telefonoa \*

Helbide elektronikoa \*

**Laguntza-mota**

GBA programa      BA lerroa

**Laguntza zer diru-laguntza linearen motarako eskatzen den:**

- Generoko Diagnostiko Partizipatiboa eta Genero-ekitatearen aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egitea.
- Genero-ekitatearen aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egitea.
- Genero-ekitatearen aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren implementazioa eta ondorengo ebaluazioa.
- Genero-ekitatearen aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren implementazioa ebaluatzea.

**Entitate eskatzailearen datu fiskalak dituen lurraldea/probintzia**

Lurraldea/probintzia \* Hautatu aukera

Araba   
  Bizkaia   
  Gipuzkoa   
  Beste probintzia bat

**Erakunde eskatzailearen datuak**

Kod. Eragileen erreg.	Izena	IFZ	Erregistroa	Erregistro-data

**Prozesuaren talde dinamizatzailearen osaera**

Kanpo-dinamizatzaile gisa proposatutako pertsona fisiko edo juridikoa(k): \*

Erakunde eskatzailearen genero-erreferentzia gisa izendatutako pertsona: \*

**Erakunde eskatzailearen genero barne-taldeko kide diren pertsonak (izena eta kargua)**

Izena	Postu/kargua

**Proiektua**

Proiektuaren izenburua (gehienez 150 karaktere) \*

Proiektuaren laburpena (gehienez 400 karaktere) \*

**Proiektuaren iraupena**

Aurreikusitako hasiera-data\*

Zenbat hilabetetan gauzatuko den \*

**Proiektuaren finantzaketa**

Kostua guztira (eurotan) \*    Eskatutako dirulaguntza (eurotan) \*

**Aurrekontu-taula (Partidak / GLEAri eskatutakoa)**

Zenbaki-motako eremuetarako balio duen formatua honako hau da: #.###,##, hau da, miletan puntu eta hamartarretan koma.

A. Zuzeneko kostuak
---------------------

A.I.- Diagnostikoa bideratzeko zerbitzuak

A.II.- Plana bideratzeko zerbitzuak

A.III.- Antolaketa-aldaketaren prozesuko pertsona erreferentearen kostu laboralak

A.IV.- Prestakuntza

A.V.- Esperientzia trukaketen kostuak

A.VI.- Argitalpen eta/edo sistematizaziorako zerbitzuen eta langileen kontratazioa

A.VII.- Ebaluazioa bideratzeko zerbitzuak

Zuzeneko kostuak guztira

B. Zeharkako gastuak

Erakunde eskatzailearen gastu administratiboak \*

Zeharkako gastuak guztira

Orokorra

## DATU OSAGARRIAK

### Erakunde eskatzailearen inguruko beste datu batzuk

Bazkide kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Boluntario kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Langile kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

Zuzendaritza Batzordeko/Patronatutako kide diren pertsona kopurua:

Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *	Guztira *
-------------	-----------	---------------	-----------

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Entitate eskatzaileak adierazten du dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori frogatzeko dokumentazioa duela; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duela, eskatzen zaionean; eskubidea aitortzen zaion bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

### Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpenak

1. Eskatu edo jaso du beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatzea edo jasotzea, edozein administrazio edo erakundetik datozela ere, publikoak zein pribatuak izan:

- o Ez
- o Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan. Informazio horrek bat etorri behar du eskabide honen aurrekontu-taulan ematen denarekin eta partiden arabera banakatutako aurrekontuarekin (ezarritako ereduaren arabera erantsi behar da).

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera: eskatua edo lortua

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, bere erakunde autonomoek eta bere sektore publikoko beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta dago:

Ez  
 Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan.

**Prozedura / Instantzia kudeatzailea**

Prozedura	Instantzia kudeatzailea

3. Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako debeku baten eraginpean.

4. Ez du laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigortua izateagatik gertatutakoak barne, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

5. Egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan jasotako baldintzetan. Agindu hori zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeari buruzkoa da, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan. Halaber, hitz ematen du betebeharrak horiek betetzen jarraituko duela emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte.

6. Ez dago laguntzak berreskuratzeko emateke dagoen agindu baten eraginpean, Europako Batzordeak, aldez aurretik, laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekiko bateraezintzat jotzeko erabaki bat eman ondoren.

7. Bai, -minimis- araubidearen eraginpeko laguntzak jaso ditu, 2021eko, 2022ko eta 2023ko zerga-ekitaldietan Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluko minimis laguntzei ezartzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduaren arabera (EB).

Entitate emailea	Zenbatekoa

**EGIAZTAPENA**

Entitate eskatzaileak ez badu baimenik ematen ofiziozko egiaztapenen bat egiteko, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aplikatu beharreko araudiari jarraituz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak entitate eskatzailearen/partzuergo-buruaren honako datu hauek ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari:

**Legezko ordezkariaren egiaztapena**

Entitate eskatzaileak baimena ematen dio deialdi honen organo kudeatzaileari administrazio eskuduneari egiaztatu, jaso edo egiaztatzeko, baliabide telematikoen bidez edo, hala badagokio, legezko ordezkariaren egiaztagiria eskura duten baliabideen bidez.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Agenteen Erregistroan izena eman izanaren egiaztagiria**

Erakunde eskatzaileak baimena ematen dio deialdi honen organo kudeatzaileari administrazio eskuduneari bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Agenteen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzeko.

**Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa**

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak «Garapenerako lankidetzako laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- **Helburua:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO LAGUNTZAK, DIRULAGUNTZAK ETA BEKAK KUDEATZEA.
- **Legitimazioa:**
  - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion botere publikoak egikaritzeko.
- **Hartzaileak:**
  - Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
  - Gizarte Segurantzako erakundeak.
  - EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN KOOPERANTEEN ETA BEKADUNEN IZEN-ABIZENAK ARGITARATZEA.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/019500-cap2-eu.shtml>).

**Araudia:**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)).

**Aurkeztu beharreko agiriak**

Agiriak euskara edo gaztelania ez beste hizkuntza batean baldin badaude, horiekin batera gaztelaniarako eta/edo euskararako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

**AGIRIAK ERANSTEA****Eskatutako dokumentu motak**

Eskatutako dokumentuak	Ekintzak
Proposamen teknikoa	Erantsi/Bilatu/Emana
Aurrekontua	Erantsi/Bilatu/Emana
Proposamen teknikoaren eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana
Entitate eskatzailearen eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana

HALA BADAGOKIO, SARTU HEMEN BESTE EDOZEIN DOKUMENTU